

## ANA MARI.

Aldapa bera, alai alai, buruban fardel zuri aundiya dubela jaišten da, erbiya bera baño ariñago, Ana Mari gobarazalia: berekin paria egiteko ez litzake guztiz gauza erreša beste bat arkitzia, ain da neskach polit eta liraiña; jantziko balitz aberats modura, emangoluke edozein eche aundiko alaba, bañan nola dan menditarra ezin izan beste inor Ana Mari gobarazalia baizik.

Nola bakarrik dijoan bidian, zenbait pentsamentu nastutzen ditu bere artian, eta bat batean gelditzen da, zerbait aztu balitzayoke bezela. ¿Zer ote du? ¿norbaitek deitu ote diyo? Ez, ez da entzuten gurdi baten kurpillak egiten duten soñua besterik.

Ana Mari, ori igarririk, ez da bere lekutik abiyatzen; norbaitek izutu nai baldin baluke, ez det uste batere ikaratuko litzakela, ain dago gogoz soñu ori aditzen.

Orla dagola, bertaratzen da gurdiya, eta gurdiyaren atzetik Anñon itzaya, garrondo gañetik akulluba dakarrela eta ontatik bi besoak zintzillik.

Ana Marik ikusi ondoren esaten dio

—Oi, Anñon—arritu samarrian bezela—Donosti aldera zoaz noski, ¿ala ez da?

—Bai, Ana Mari, ¿zergatik diozu galdeera ori?—eranzun zion, naitasunezko begiratu batekin.

—Oi... zergatik? ¿Gaizki iduritu altaiztu nere galdeera?

—¿Gaizki?... Bai zera,—eranzun zion, bat batian Anñonek nai ez degun gauza bat uste ez dala esaten degunian bezela.

—Ala uste nuben.—Segiran esan zion Ana Marik.—Anñon, nere buruko fardel au gurdira botatzera nua, eta bitartean joango gera biyok alkarrekin. ¿Nai dezu?

—Beñere nere barrenian ez det gozotasun aundiagorik igarri, zuk ori esanarekin baño, Ana Mari.

Bat batian etorri zitzaion algara bat Ana Mariri; ezpain gorri ayen tartetik erakutsirik aĩn ortz churiak, non dizdizaturik arri fiĩ balio-soak ziruditen.

—Bai, Ana Mari—Anĩonek zion, Ana Marik gurdira botiaz fardela.—Ez dakit gaur nola arki izan geran biyok. Nik uste nuen igarriko zenubela, aspaldi ontan, nitzaz zerbait, zergatik...

—Nik zerbait, oi—eranzun zion beriala, eman gabe denborik esateko nai zuben gauza.—Emen aingeruren bat dabill.

—Bai, Mari, aingerua zu zera, eta ez gero nolanaikua; zu izan zera, zuk ez jakiĩn arren nik maite izan dedan neskacha, zergatikan zu zeran alakoa.

—Oi, beraz ez banintzan izan zuk uste dezun antzekoa, ez ninduzun maiteko, diozunez.

—Baita izan baziĩnan ez dakit zér ere, Ana Mari zeran bezela, beti, beti, zuria izango ninduzun.

Ontan, orla zijoazela, aurrari baba darion bezela ezpaĩnetatik, aberi nunbait biotzian iĩsuriko zitzaioten, ta etzan gauza guchiagorako; atzetik zetozen manso manso idiyak, idiyen atzetik gurdiya onen kurpillak soĩu egiĩnaz zerbait esan nayeian bezela, aĩn agertzen zan kanpua sasoi Samurrian, nere begiyen aurrian iĩnoiz agertu ez dan bezelakoa.

Alderatzen ziran Donostirá nai baĩon lenago; baĩa nola esan zizkaten elkarri gauzik naigarrienak, orra nola dijoazen oraiĩ Anton alde batetik eta Ana Mari bestetik.

Goiz jaikitzen danari Jaunak laguntzen omen diyo, eta orra gure Ana Mari egun sentirako egazti eta ganaduak maniatu, gobara ekarri eta eraman, topatu zeĩnek maitatu, eta non dijoan len aldapa bera bezela oraiĩ aldapa gora.

FRANZISKO LOPEZ ETA ALÉN.

